

Eguraldi txarrarekin etxean. Piezen letrak

Kantak

Kattalin arin-arin

Kattalin arin-arin,

Kattalin arina,

zenbatean saltzen duzu

dozena sardina?

Hamalau marabedi,

prezioa jakina,

Kattalinek omen du

nahikoa sardina.

Kaletik pasa eta,

kasurik ez egin,

neronek erran diot:

Adio, Kattalin!

Asmakizunak

- Etxe batean lau ahizpa bizi dira, bata bestearen ondoan, baina banatuak. Zer dela pents? (intxaurra)
- Aita handia, ama latza eta umea beltza. Zer dela pents? (gaztaina)
- Ahuntz bat orroka bi mendiren artean. Zer dela pents? (puzkerra)

Formulak

- Euria egitean: Euria, euria! Artzainaren txapela gorria!
- Elurra egitean: Elurra, elurra! Artzainaren txapela makurra!
- Norbait jaten ari denean: On egin!

Jolasak

- Xaldun kortin, pipitt kortin, zenbaten artin?
- Txista-mista, hor dago mista, hemen ez badago, hemen dagoela!
- Minttini-manttana, sobera, barbara, betea edo hutsa?

Zirtoa

- Zer?
- Gauza ona behin!

Zotz egiteko

- Don, don, kandel, nika, nika, moskatel, zerradura, klabadura, txintxiri plata, txiribiri arka, arka txipiton delaton, zaku zahar baten hiru gizon!